# HALZEKU

Herri Administrazioko Lanpostu Zerrenden Kudeaketa

# LEHENENGO KARGAREN GIDA

- SARBIDEA
- TXANTILOIAK
- TXANTILOIAK BETETZEA (ATALAK)
- TXANTILOIAK BETETZEA (LANPOSTU-LANGILEAK)
- LANPOSTU ZERRENDA KARGATZEA
- OHIKO GALDERAK

HALZEKU

Herri Administrazioko Lanpostu Zerrenden Kudeaketa

# 1. SARBIDEA

# HALZEKU aplikazioan sartzea

1




- HALZEKU aplikazioa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunean dago eskuragarri.
- https://www.euskadi.eus/ad11aWebAppWar/

2




- Aplikazioan sartzeko BAkQ edo ziurtagiri elektronikoa erabili behar da.




# 2. TXANTILOIAK

# TXANTILOIAK




**TXANTILOIAK** deskargatzeko DATUEN KARGA barruan “Datu-fitxategiak inportatu” sakatu behar da.




**FITXATEGI MOTA barruan aukeratu banan-banan karga egiteko beharrezko diren bi txantiloiak (Atalak eta Lanpostu-Langileak) eta borobildutako “Txantiloiak” sakatu, txantiloiak deskargatzeko.**

# TXANTILOIAK



INPORTAZIOLANPOSTULANGILE.zip



INPORTAZIOATALAK.zip

**TXANTILOIAK** .zip formatuan deskargatzen dira.

Karpeta bakoitzaren barruan bi artxibo daude:

**1**

**.XLXS**

Lehenengo hau irakurri, ARAUAK baitira. Hemen agertzen dira azalpenak, aplikazioak onartzen dituen balioak, luzera maximoak zein minimoak… eta derrigorrez betetzekoak diren datuak.

**2**

**.CSV**

Benetako txantiloia. Honen gainean idatzi behar dira Lanpostu Zerrendako datuak nahitaez, aplikazioak ez du bestelako formaturik onartzen. Hau da, Lanpostu Zerrenda ezin daiteke igo beste era baten antolatuta, .XLXSko arauak zein .CSVarean izenburuak errespetatu behar dira.

<u>Gomendioa</u>:
.XLXS zabalik eduki .CSVa betetzerako orduan.

**DATUAK OSATZEKO ARAUAK**

| | ATALAKKODEA | IZENA | IZENAMAILA1 | IZENAMAILA2 | IZENAMAILA3 | IZENAMAILA4 | OHARRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BEHARREZKOA** | BAI | BAI | EZ | EZ | EZ | EZ | EZ |
| **LUZERA MAX** | 20 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **LUZERA MIN** | 5 | EZ | EZ | EZ | EZ | EZ | EZ |
| **ONARTUTAKO BALIOAK** | ALFANUMERIKA | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | ∞ |

# 3. TXANTILOIAK BETETZEA (atalak)

# TXANTILOIAK BETETZEA (atalak)

Behin .XLXSko arauak irakurrita, .CSVa bete behar da. Kasu honetan, nahitaez derrigorrezkoak diren zutabeak A eta B dira soilik (ATALAKKODEA eta IZENA). Adb.:

| | A | B | C | D | E | F | G |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ATALAKKODEA | IZENA | IZENAMAILA1 | IZENAMAI | IZENAMAI | IZENAMAI | OHARRA |
| 2 | 11111 | ZERBITZU OROKORRAK | | | | | |
| 3 | 11112 | GIZA BALIABIDEAK | | | | | |
| 4 | 11118 | OBRAK ETA ZERBITZUAK | | | | | |
| 5 | 11144 | INFORMATIKA | | | | | |
| 6 | 21115 | EUSKARA ZERBITZUA | | | | | |

*

Lanpostu Zerrendako atalek ez badute koderik, asmatu, betiere .XLXSko baldintzak errespetatuz. Lanpostu Zerrendan ez badago atalik, honako hau litzateke bete beharrekoa:

| | A | B | C |
|---|---|---|---|
| 1 | ATALAKKODEA | IZENA | IZENAM |
| 2 | 11111 | ADMINISTRAZIO OROKORRA | |

* asmatutako datuak

## DATUAK OSATZEKO ARAUAK

**LANPOSTUA**

| | LANPOSTUAREN IZEN | TITULAZIO TALDEA | MOTA | ANPOSTUAREN KODE | DOTAZIOA | OHARRA | HE (IRAKURMENA ETA IDAZMENA / ENTZUMENA ETA MINTZAMENA) | DATA | TITULARRA / OKUPANTEA / HUTSIK | ATALAREN KODEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| OHARRA GARRANTZITSUA | Karga sistema honek zenbait karga mota baimentzen ditu:<br>1- lanpostu bat langile eta atal bati lotuta HALZEKU aplikaziora igotzea baimentzen du.<br>2- Lanpostu bat atal bati lotzea eta igotzea, langile bati lotu barik.<br><br>Karga hibridoa baimentzen da, hau da, lerro batean langile baten datuak jartzea eta hurrengoan langile daturik ez jartzea baimentzen da.<br><br>J zutabean (TITUOKU) H (Hutsik) aukeratzen bada EZIN da langilearen daturik jarri, akatsa emango du.<br>O (Okupantea) edo T (Titularra) aukeratuz gero langilearen datuak jarri behar dira.<br>Atala aurretik sortuta egon behar da. | | | | | | | | | |
| AZALPENA | LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTUAK ESKATZEN DUEN TITULAZIO TALDEA | LANPOSTUAREN LAN KONTRATU MOTA | LANPOSTUAK DUEN KODEA | LANPOSTUAREN DOTAZIOA | LANPOSTUARI LOTUTAKO OHARRA | LANPOSTUAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | LANPOSTUAREN DERRIGORTASUN DATA (BALDIN ETA BADU) | LANGILEAREN LAN KONTRATU MOTA | ATALAREN KODEA |
| BEHARREZKOA | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | EZ | BAI | BAI | BAI | BAI |
| LUZERA MAX | 100 | 5 | 1 | 8 | 5 | 1000 | 5 | EZ | 1 | 20 |
| LUZERA MIN | EZ | EZ | 1 | EZ | EZ | EZ | 5 | EZ | 1 | 5 |
| ONARTUTAKO BALIOAK | Ñ BARNE LETRAK, ZENBAKIAK, ZURIUNEAK, MARRA EDO AZPIMARRA | A1<br>A1A2<br>A2<br>A2C1<br>A2C2<br>B<br>BLT<br>C1<br>C1A2<br>C1C2<br>C2<br>C2AP<br>C2E<br>E<br>LM/AP<br>LT<br>LT/AP<br>ABC | L - Laboral finko<br>F – Funtzionarioa<br>E – Ebentuala<br>D – Zuzendaritza<br>P - Pasiboak eta onuradunak | ∞ | ZENBAKIAK BAKARRIK | ∞ | A2-B1<br>B1-B1<br>B1-B2<br>B2-B2<br>B2-C1<br>C1-C1<br>C2-C1<br>C2-C2<br>B1-""<br>B2-""<br>C1-""<br>C2-""<br>""-B1<br>""-B2<br>""-C1<br>""-C2<br>TP-TP | H. Hutsik<br>2. DATA uuuu/hh/ee FORMATAREKIN<br>TP . | H - HUTSIK T – TITULARRA<br>O – OKUPANTEA | ALFANUMERIKOA |

**LANGILEA**

| | NAN | IZENA | LEHENENGO ABIZENA | BIGARREN ABIZENA | JAIOTZE DATA | SALBUETSITA (40. ARTIKULUA) | EGIAZTATUTAKO HE (IRAKURMENA ETA IDAZMENA / ENTZUMENA ETA MINTZAMENA) | SEXUA | OHARRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AZALPENA | LANGILEAREN NAN ZENBAKIA | LANGILEAREN IZENA | LANGILEAREN 1. ABIZENA | LANGILEAREN 2. ABIZENA | LANGILEAREN JAIOTZA DATA | LANGILEARI LOTUTAKO SALBUESPENAK | LANGILEAK EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | LANGILEAREN SEXUA | LANGILEARI LOTUTAKO OHARRA |
| BEHARREZKOA | BAI | BAI | BAI | EZ | BAI | BAI | BAI | BAI | EZ |
| LUZERA MAX | 9 | 50 | 50 | 50 | EZ | 1 | 5 | 1 | 500 |
| LUZERA MIN | 9 | EZ | EZ | EZ | EZ | 1 | 3 | 1 | EZ |
| ONARTUTAKO BALIOAK | BENETAKO NAN | ALFANUMERIKA | ALFANUMERIKA | ALFANUMERIKA | DATA uuuu/hh/ee FORMATAREKIN | E - Ez dauka salbuespenik<br>A - Adina<br>O - Oin. ikas.<br>D - Desgaitasun<br>H - Hizkun. Zail. | A2-B1<br>B1-B1<br>B1-B2<br>B2-B2<br>B2-C1<br>C1-C1<br>C2-C1<br>C2-C2<br>B1-""<br>B2-""<br>C1-""<br>C2-""<br>""-B1<br>""-B2<br>""-C1<br>""-C2<br>E-E | E – Emakumea<br>G - Gizona<br>M - Ez bitarra | ∞ |

J zutabean (TITUOKU) H (Hutsik) aukeratzen bada EZIN da langilearen daturik jarri, akatsa emango du.
O (Okupantea) edo T (Titularra) aukeratuz gero langilearen datuak jarri behar dira.
Atala aurretik sortuta egon behar da.
H zutabean TP-TP aukeratzen bada, I zutabean TP aukeratu behar da

E-E aukerak LANGILEAK EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK

# 4. TXANTILOIAK BETETZEA (lanpostu-langileak)

# TXANTILOIAK BETETZEA (lanpostu-langileak)

Kasu honetan aldiz, zutabe gehienak derrigorrezkoak dira. Ondo irakurri behar da .XLXS dokumentua, zutabe bakoitzak bere berezitasunak dituelako. Berezienak:

| | | |
|---|---|---|
| B ZUTABEA | TITULAZIO TALDEA | Beharrezkoa da. Onartutako balioen artean aukeratu lanpostuaren titulazioa. |
| C ZUTABEA | MOTA | Beharrezkoa da. Lanpostuaren lan kontratua. Luzera maximoa digitu bakarra da; *adb.:* Laboral finkoa bada, "L" litzateke bete beharrekoa. |
| E ZUTABEA | DOTAZIOA | Beharrezkoa da. Lanpostu guztiek dute dotazioa. Lanpostu Zerrendan ez bada agertzen dotaziorik, "1“ dagokio lanpostu horri. |

# TXANTILOIAK BETETZEA (lanpostu-langileak)

| | | |
|---|---|---|
| G ZUTABEA | HE<br>(Irakurmena eta Idazmena / Entzumena eta Mintzamena) | Beharrezkoa da. .XLXS arauetan «Onartutako balioak» eskaintzen dituenen artean aukeratu behar da. Baliokidetasuna beheko argazkian dator adierazita.<br><br>Teknikari profesionalen kasuan (normalizazio teknikari, itzultzailea…) → TP-TP*<br><br>**KONTUZ:** C1 edo C1/C1 edo C1-B2 ez dira onartzen. C1-C1 litzateke egokia. |

| HE | Irakurmena eta idazmena | Entzumena eta mintzamena |
|---|---|---|
| 1 | B1 | B1 |
| 2 | B2 | B2 |
| 3 | C1 | C1 |
| 4 | C2 | C2 |

| | | |
|---|---|---|
| H ZUTABEA | DATA | Beharrezkoa da. Lanpostuaren derrigortasun data.<br><br>Lanpostuak ez badu derrigortasun datarik → "HUTSIK" erantzun<br>Lanpostuak data badu → "uuuu/hh/ee" formatuarekin erantzun<br>Lanpostuak teknikari profesional batek betetzen badu → "TP" erantzun |

* G zutabean TP-TP jartzen bada, derrigorrez H zutabean TP jarri behar da.

# TXANTILOIAK BETETZEA (lanpostu-langileak)

| | | |
|---|---|---|
| I ZUTABEA | TITULARRA / OKUPANTEA / HUTSIK | Beharrezkoa da. Langilearen lan kontratu mota. Luzera maximoa digitu bakarra da; beraz, *adb.:* Titularra bada, “T" litzateke bete beharrekoa.<br><br>**OHARRA:** “H”, hau da, HUTSIK aukeratzen bada, **ezin da langilearen daturik jarri**, ez daudelako langilerik. Akatsa ematen du langilearen datuak jarri ezkero. |
| J ZUTABEA | ATALAREN KODEA | Beharrezkoa da. Aurreko txantiloian (atalak) **bete denarekin bat etorri behar da**. |
| K ZUTABEA | NAN | Beharrezkoa da. Benetako NAN zenbakia izan behar da, **letrarekin**. |
| P ZUTABEA | SALBUETSITA (40. ARTIKULUA) | Beharrezkoa da. Langileak euskararekiko duen salbuespena. Luzera maximoa digitu bakarra da; beraz, *adb.:* Adinagatik salbuetsita badago, “A" litzateke bete beharrekoa.<br><br>Ez badauka salbuespenik, “E” litzateke bete beharrekoa. |
| Q ZUTABEA | EGIAZTATUTAKO HE | Beharrezkoa da. Langileak egiaztatutako Hizkuntza Eskakizuna (G zutabea bezala, baina kasu honetan langilearena). Ez badauka HE egiaztatuta, “E-E” litzateke bete beharrekoa. |

# TXANTILOIAK BETETZEA (lanpostu-langileak)

Lanpostu-langileak .CSV adibide bat:

*

| | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | LANPOSTUAREN IZENA* | TITULAZIO TALDEA* | MOTA* | LANPOST | DOTAZIO | OHARRA | HE (IRAKU | DATA* | TITULARR | ATALAREN | NAN* | IZENA* | LEHENE | BIGARRE | JAIOTZE DAT | SALE | EGIAZTAT | SEXUA | OHARRA | |
| 2 | Idazkari-Kontuhartzailea | A1 | F | 1.1.1. | 1 | Ekonomia | C2-C2 | 2011.06.18 | T | 11111 | 12345678A | JON | IBARRA | ARTETXE | 18/03/1976 | E | C2-C2 | G | | |
| 3 | Euskara teknikaira (ardurad.) | A1A2 | F | 2.1.1. | 1 | | TP-TP | TP | T | 21115 | 12345678B | MIKEL | MUGAR | SANCHE | 12/09/1997 | E | C2-C2 | N | | |
| 4 | Informatikaria | C1 | F | 2.1.2. | 1 | | C1-C1 | HUTSIK | T | 11144 | 12345678C | IRATXE | GOMEZ | FERNAN | 12/12/1987 | E | C2-C2 | E | | |
| 5 | Administraria | C1 | L | 2.1.3. | 1 | | C1-** | 2021.02.18 | H | 11111 | | | | | | | | | | |
| 6 | Informatikari laguntzailea | C2 | E | 2.1.3 | 2 | | **-B2 | 1999.12.12 | T | 11144 | 12345678D | HARITZ | IBARRO | DIEZ | 05/08/1971 | E | C2-C2 | G | | |
| 7 | Euskara teknikaria | A2 | E | 2.1.5. | 1 | | TP-TP | TP | T | 21115 | 12345678E | MAITE | ARTETXE | ATXUTE | 02/11/1988 | E | C2-C2 | E | | |
| 8 | Euskara teknikaria | A2C2 | L | 2.1.6. | 1 | | C2-C2 | 1979.10.18 | H | 21115 | | | | | | | | | | |
| 9 | Teknikari orokorra | A2 | F | 2.1.7. | 1 | | C2-C2 | 1989.05.13 | T | 11111 | 12345678F | MAIALE | JUAREZ | SOTO | 16/08/1986 | E | C2-C2 | E | | |
| 10 | Teknikari orokorra | A2 | F | 2.1.8. | 1 | | C2-C1 | 1992.06.23 | T | 11111 | 12345678G | LIBE | BILBAO | BARTUR | 03/01/1985 | E | C2-C2 | E | | |
| 11 | Administraria | C1 | F | 2.1.9. | 1 | | C1-C1 | HUTSIK | O | 11111 | 12345678H | ANTON | HURTAD | GOMEZ | 19/12/1983 | O | E-E | G | | |
| 12 | Lorezaina | C2AP | E | 2.1.10. | 1 | | B1-** | HUTSIK | O | 11111 | 12345678I | AITOR | IURREB | SOLIS | 10/12/1986 | E | C2-C2 | N | | |
| 13 | Teknikari orokorra | A2 | F | 2.1.11. | 1 | | C1-C1 | 2012.10.14 | H | 11111 | | | | | | | | | | |
| 14 | Peoia | LM/AP | F | 2.1.12. | 1 | | B1-B2 | HUTSIK | O | 11118 | 12345678J | MIREN | ORDOÑ | FLORID | 24/05/1996 | A | E-E | E | 6 hilabeterako | |
| 15 | Giza baliabideko teknikaria | A2 | F | 2.2.2. | 1 | | C2-C2 | 1986.09.27 | O | 11112 | 12345678K | AMAIA | ZAMALL | MARTIN | 01/12/1968 | E | C2-C2 | E | | |
| 16 | Euskara teknikaria (ikerlaria) | A2 | L | 2.2.2. | 2 | | TP-TP | TP | O | 21115 | 12345678AL | IÑAKI | YALDEBE | SANCHO | 16/02/1976 | E | C2-C2 | G | | |
| 17 | Teknikari orokorra | A1 | F | 2.2.2. | 3 | | C1-C1 | 2021.11.18 | O | 11111 | 12345678M | AITZOL | SARASO | PIQUER | 22/10/1974 | E | C1-C1 | G | | |
| 18 | Komunikazio teknikaria | A1 | F | 4.1.1. | 1 | | C2-C2 | 2020.12.14 | O | 11111 | 12345678Z | JON MI | IRUSTA | RAMIRE | 16/10/1977 | E | C2-C2 | G | | |

* asmatutako datuak




# 5. LANPOSTU ZERRENDA KARGATZEA

# KARGA

Behin bi .CSVak beteta, aplikazioan kargatu behar dira.
Ezinbestekoa da ordena honetan kargatzea:

LEHENENGO KARGA → ATALAK

BIGARREN KARGA → LANPOSTU-LANGILEAK



# KARGA




Artxiboak kargatzeko, DATUEN KARGA barruan "Inportatu" sakatu.

- FITXATEGI MOTA aukeratu (Atalak lehenengo eta Lanpostu-langileak ondoren)
- ERAKUNDEA aukeratu
- FITXATEGIA erantsi
- KARGATU

# KARGA




Lanpostu-langileak kargatzerako orduan, aurreko informazioa ezabatu nahi bada galdetzen da.

Kasu honetan lehenengo karga denez “Ez” sakatu (→)



# KARGA

Karga zuzen igo da EGOERA zutabean tik berdea (✔) agertzen denean. Gurutze gorria (✖) agertzen bada, karga ez da zuzena eta **<u>ez da ezer kargatzen</u>**.




Ezkerreko zutabean “Deskargatu” klikatuz gero, karga horretan kargatzen saiatu den .CSVa deskargatzen da. “Igoeraren txostena” klikatuz gero aldiz, erroreen txostena dago eskuragarri (bi orrialde aurrerago).

# AKATSDUN KARGA

Artxiboak akats bakar bat badu, **ez da karga igotzen** (argazkian azpimarratuta) eta argazkiko pop-up agertzen da:




Akatsak hobeto ikusteko eta erroreak konpontzeko, aurreko diapositiban azaldutako “Igoeraren txostena” deskargatzea gomendatzen da (hurrengo orrialdea). Akatsak zuzendu eta berriro karga egin beharko litzateke, tik berdea lortu arte.

# AKATSDUN KARGA (Igoeraren txostena)

"Igoeraren txostena" horrela ikusten da:

| | A | C | F |
|---|---|---|---|
| 1 | JASOTAKO INFORMAZIOAREN KONTROLA: | | |
| 2 | Lerroaren zenbakia: 2 | Zuzena | |
| 3 | Lerroaren zenbakia: 3 | Zuzena | |
| 4 | Lerroaren zenbakia: 4 | Ezin izan dira datuak inportatu. | Langilean informazioa jasotzen ari da, baina tituoku = H.HUTSIK adierazi da. - Errorea ahozko eta idatzizko hizkuntza-profilean (Lanpostuak) |
| 5 | Lerroaren zenbakia: 5 | Ezin izan dira datuak inportatu. | Langilearen derrigorrezko datuak falta dira: (SEXUA) - Sexuan akatsa (Langileak) |
| 6 | Lerroaren zenbakia: 6 | Zuzena | |
| 7 | Lerroaren zenbakia: 7 | Zuzena | |
| 8 | Lerroaren zenbakia: 8 | Zuzena | |
| 9 | Lerroaren zenbakia: 9 | Ezin izan dira datuak inportatu. | Eremua laburregia da ATALAKKODEA (MIN 5) |
| 10 | | | |
| 11 | 8 erregistrotik 0 kargatu da. | | |

Lerroa zuzena edo okerra den azaltzen du

Lerroa okerra denean, akatsa azaltzen du (konpontzeko).

Adb.: 9. lerroan, eremua laburregia da, minimo 5 digitu behar ditu eta egindako kargan digitu bakarra zegoen.

# KARGA PROZESUAREN BUKAERA

Bai “Atalak”, bai “Lanpostu-Langileak” kargak zuzen kargatu direnean (tik berdea ✓ agertzen denean) bukatzen da karga prozesua.

| Egoera |
|---|
| ✓ |
| ✓ |



# 6. OHIKO GALDERAK

# OHIKO GALDERAK

**DERRIGORREZKOA DA HALZEKU ERABILTZEA?**
Bai, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 2022ko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 187.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**NAHITAEZ BETE BEHAR DA TXANTILOIA ALA BADAGO BIDALTZERIK EXCEL FORMATUAN INFORMAZIO BERA BESTE MODU BATEN ANTOLATUTA?**
Bai ala bai .CSV txantiloia bete behar da, aplikazioak bestela ez ditu balioak ulertuko.

**HASIERAKO KARGA EGINDA, ONDOREN ALDAKETAK BAINO EZ DIRA SARTU BEHAR?**
Bai, ez bada Lanpostu Zerrendaren aldaketa handia, orduan errazago litzateke hasierako karga hau ordezkatzea karga oso berri bat igotzen.

**ZELAN EGITEN DIRA ALDAKETA TXIKIAK?**
Aurrerago eskuragarri izango da beste gida (Aplikazioaren eskuliburua), eta bertan azalduko da. Gida honetan lehenengo/hasierako karga azaltzen da, aplikazioa hutsik baitago.

# OHIKO GALDERAK

**ZENBATERO EGUNERATU BEHAR DA APLIKAZIOAN KARGATUTAKO INFORMAZIOA (LZ)?**
Aplikazioa ahalik eta eguneratuen mantendu behar da. Gomendatzen da gutxienez urtean behin birpasatzea. Aplikazioaren eskuliburuan hobeto azalduko da.

**UDAL BATEAN ERAKUNDE AUTONOMO BAT DAGO BAINA UDALAK KUDEATZEN DU ERAKUNDEAREN LZ (EZ DA DAGO UDALAREN LZ BARRUAN SARTUTA). 1. ZELAN KUDEATZEAN DA HORI HALZEKUN? 2. ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK BERAK KUDEATZEN BADU LZ? 3. ETA ERAKUNDE AUTONOMOAREN LZ, UDALAREN LZ BARRUAN KOKATUTA BADAGO?**
1. Udalak “baimen inprimakia” bidali beharko dio HPSi organismo autonomoaren LZ kudeatzeko baimendutako pertsonaren datuekin.
2. Erakunde autonomoak kudeatzen badu LZ, erakunde autonomoak berak “baimen inprimakia” bidali beharko dio HPSi bere langile baimenduaren datuekin.
3. Erakunde Autonomoaren LZ udalaren LZ barruan kokatuta badago, udalak kudeatuko du aplikazioa, baimendutako pertsonarekin.

# OHIKO GALDERAK

**PERTSONA BAKARRA EGON DAITEKE APLIKAZIOA ERABILTZEKO BAIMENDUTA?**
Ez, pertsona bat baino gehiago egon daitezke. Pertsona gehiago baimentzeko, HPSi bidali behar zaio "baimen inprimakia" pertsona horren/horien datuekin.

**LANPOSTU ZERRENDATIK KANPO DAUDEN LANGILEEKIN ZELAN JOKATU BEHAR DA?**
HALZEKU aplikazioan Lanpostu Zerrendako datuak besterik ez dira gehitu behar.

**LANPOSTU ZERRENDA ALDATUKO DUGU EPE LABURREAN, ZER KARGATU BEHAR DUT?**
HPSri jakinarazi eta aztertuko da kasua.

**ZALANTZARIK BADUT NOREKIN JARRI BEHAR NAIZ KONTAKTUAN?**
HPSko Kristian Mugarza eta Lourdes Aranguren dira HALZEKUn arduradunak. Kontaktuak:
k-mugarza@euskadi.eus / l-aranguren@euskadi.eus

HALZEKU

Herri Administrazioko
Lanpostu Zerrenden
Kudeaketa

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA